

Cristina Artabe Etxebarria
Amorebieta-Etxano, Bizkaia (1920)

Aurkibidea

Biografia

1920. urtean jaio zen Aldana auzoko Aldanagoikoa baserriko Cristina. Arratian jaio zen aita, Etxanon ama. Senarra Aldabekoakoa zuen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Zintak

AMO-090

- **Proiektua:** Zornotzako aditz-eren karinkara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zelaieta Gerediaga, Luis Mari
- **Data:** 1988-10-15
- **Iraupena:** 31 min
- **Euskarria:** CD
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar
- **Emalea:** Amorebieta-Etxanoko Udala

Pasarteak

1. Abarketak kenduta etxera oinez

- **Erref:** AMO-090/006
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:04:49

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Tabernara joateko ohitura egon da beti. Aita egunero joaten zen tabernara musean jolastera. Abarketak eskuan hartuta etxera bueltatzen zen oinez.

2. Aldanako euskara

- **Erref:** AMO-090/008
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:04:51. **Bukatu:** 00:06:01

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Aldana auzoko euskara eta Zornotzakoa edo Larrabetzukoa ez da berdina.

3. Aldanako eskola

- **Erref:** AMO-090/010
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:08:06

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Auzoko eskola ireki zuten bera umea zenean. Auzoko gizonek eraiki zuten eta orain gutxi arte egon da zabalik. Hamabost urtera arte joan zen eskolara. Maistra bakarra zegoen. Eskola uzten zutenak neskame edo morroi bezala joaten ziren. Bilbon ibili zen Cristina neskame gerra hasi zen arte.

4. Garai bateko baserria

- **Erref:** AMO-090/012
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:08:11. **Bukatu:** 00:10:52

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Aldana auzoko jendeak ardiak izan ditu beti. Garia ere ereiten zuten. Zoroan lan egiten zen. Behiak eta idiak ere izaten zituzten, basoan ibiltzeko. Orain dela 25-30 urte sartu ziren pinuak. Garai batean, baserritarra izatea gutxiago izatea zen.

5. Aldanan beti euskaraz

- **Erref:** AMO-090/013
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:13:14

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan ikasi zuten gaztelaniaz. Orain dela 30 urtera arte bazeuden gaztelaniaz ez zekitenak. Aldanan denek egiten dute euskaraz, gaur egun ere. Zornotzan ere dena egiten zen euskaraz: jaunartzea, erosketak...

6. Berorika amonari; noka eta toka

- **Erref:** AMO-090/014
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:13:14. **Bukatu:** 00:16:10

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

Amonari berorika egiten zion eta gurasoek haien gurasoei ere horrela egiten zioten. Abadeari berorika egiten dio Cristinak gaur egun ere. Aldanan denek egiten dute hika, bai toka eta bai noka. Nagusiagoek direnei ez zaie hika egin behar.

7. San Juan eguneko gurutzek; bedeinkazioak

- **Erref:** AMO-090/017
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:18:43. **Bukatu:** 00:20:27

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

San Juan bezperan sua egiten da eta hurrengo goizean, iturrira joan eta urrezko pitxarra topatzera joaten ziren. Ondoren, san Juan belarra batu, gurutzeak ipini eta zoroetan ipintzen ziren gurutzeak. Garai batean, Santa Kurutz egunean abadea baserriz-baserri joaten zen zoroak bedeinkatzera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com